

GOBERNU BATZARRA

2015. 09. 07

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko irailaren zazpian goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-1278/2015 Alkate Dekretuaren berri ematea.

3.- Dirulaguntzak kanpoko ikasleei.

4.- Errotuloak euskaraz. Dirulaguntzak establezimenduentzat.

5.- Hitzarmena Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin.

6.- lurramendi egoitza: uztailleko kuoten likidazioa eta urtarriletik apirilera bitarteko likidazioen ajustearak.

7.- Kazkabarrak erangidako kalteak

8.- Hirigintza eta Obra batzordeko gaiak

1

9.-24/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko uztailaren 20an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- 1278/2015 Alkate Dekretuaren berri ematea.

1278/2015 Alkate Dekretuaren berri eman da. Dekretu horren bidez, Gobernu Batzarrarengan eskuordetu dira bertan aipatzen diren eskuduntzak, 2015eko irailaren 7tik aurrerako eraginarekin.

Hau kontuan izanik, Gobernu Batzarreko kideak jakinaren gainean geratu dira.

3.- Dirulaguntzak kanpoko ikasleei.

Euskara ikasleek dirulaguntza eskatu dute, Tolosako Udal euskaltegitik kanpo egin dituzten euskara ikastaroetan parte hartu dutelako.

Ikusiz egindako eskaerak eta kontuan hartuz dirulaguntza jasotzeko jarrita dauden baldintzak (tolosarra izatea eta gutxienez %85eko asistentzia), Gobernu Batzar honek, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Laguntzak ematea (matrikuaren erdia) diktamenean agertzen den eskatzaileei. Bestalde aipatzen da Vicenta Cuesta Lopezen kasuan, ez zela iritsi, aurkeztutako datuen arabera, %85eko asistentziara martxoan egindako ikastaroan eta, hortaz, ez dauka Tolosako Udalaren dirulaguntzarik aipameneko ikastaroari dagokionez.

BIGARRENA.- Asistentzi baldintza betetzen ez duelako diktamenean agertzen den ikasleari dirulaguntzarik ez ematea dagokion ikastaroarengatik.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari, eta interesatuei.

4.- Errotuloak euskaraz. Dirulaguntzak establezimenduentzat.

Errementari kaleko 26ko establezimenduaren titularrak errotulu nagusia euskara hutsez idatzita jarri du (Triku denda) eta Tolosako Udalar dirulaguntza eskatu dio.

Udalak, 20043ko martxoaren 23an hartutako erabakiaren arabera, dirulaguntza ematen dio errotulu nagusia bere establezimenduan euskara hutsez idatzita jartzen duenari, baldin eta establezimenduaren hizkuntza paisaia, finkoa eta orokorra, euskaraz ere agertzen bada eta Udalak ezarritako gainerako baldintzak betetzen baditu. Dirulaguntza hori errotuluaren kostuaren %50 da, 450 euroko mugarekin.

Ikusirik, aipameneko establezimenduak betetzen dituela laguntza jasotzeko ezarritako baldintzat eta, bestetik, errotuluaren kostua, aurkeztutako fakturaren arabera 56,41 euro, Gobernu Batzarrak, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 28,20 euroko dirulaguntza ematea eskatzaileari eta, era berean, ohartaraztea, behin dirulaguntza jaso ondoren, hizkuntza paisaia finko eta orokorrak euskaraz idatzita ere egon behar duela.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta interesatuari.

.....

San Frantzisko pasealekuko 13ko establezimenduaren titularrak errotulu nagusia euskara hutsez idatzita jarri du (Dizdira tintategia) eta Tolosako Udalari dirulaguntza eskatu dio.

Udalak, 2004ko martxoaren 23an hartutako erabakiaren arabera, dirulaguntza ematen dio errotulu nagusia bere establezimenduan euskara hutsez idatzita jartzen duenari, baldin eta establezimenduaren hizkuntza paisaia, finkoa eta orokorra, euskaraz ere agertzen bada eta Udalak ezarritako gainerako baldintzak betetzen baditu. Dirulaguntza hori errotuluaren kostuaren %50 da, 450 euroko mugarekin.

Ikusirik, batetik aipameneko establezimenduak betetzen dituela laguntza jasotzeko ezarritako baldintzat eta, bestetik, errotuluaren kostua, aurkeztutako fakturaren arabera 550,01 euro, Gobernu Batzarrak, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 275 euroko dirulaguntza ematea eskatzaileari eta, era berean, ohartaraztea, behin dirulaguntza jaso ondoren, hizkuntza paisaia finko eta orokorrak euskaraz idatzita ere egon behar dutela.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta interesatuari.

.....

Gernikako Arbola lorategietako 6ko duen establezimenduaren titularrak errotulu nagusia euskara hutsez idatzita jarri du (keinu! Estilistak) eta Tolosako Udalari dirulaguntza eskatu dio.

Udalak, 2004ko martxoaren 23an hartutako erabakiaren arabera, dirulaguntza ematen dio errotulu nagusia bere establezimenduan euskara hutsez idatzita jartzen duenari, baldin eta

establezimenduaren hizkuntza paisaia, finkoa eta orokorra, euskaraz ere agertzen bada eta Udalak ezarritako gainerako baldintzak betetzen baditu. Dirulaguntza hori errotuluaren kostuaren %50 da, 450 euroko mugarekin.

Ikusirik, batetik aipameneko establezimenduak betetzen dituela laguntza jasotzeko ezarritako baldintzat eta, bestetik, errotuluaren kostua, aurkeztutako fakturaren arabera 1.813,18 euro, Gobernu Batzarrak, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorri, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 450 euroko dirulaguntza ematea eskatzaileari eta, era berean, ohartaraztea, behin dirulaguntza jaso ondoren, hizkuntza paisaia finko eta orokorrak euskaraz idatzita ere egon behar dutela.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta interesatuari.

5.- Hitzarmena Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin.

Tolosako Udalak azken urteotan dirulaguntza eman izan dio Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari, Tolosako lehen hezkuntzako hiru ikastetxeetan (Hirukide, Laskorain eta Samaniego) ahozkoitasuna eta bertsolaritza proiektua aurrera eramateko egiten duen lanagatik.

Orain, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak 2014-2015 ikasturteko memoria eta gastuak aurkeztu ditu.

Aztertuta aurkeztutako dokumentazioa eta aurreko urteetan emandako dirulaguntzen kopurua, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorri, Gobernu Batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 26.500 euroko laguntza ematea eta, era berean, Bertsozale Elkartearekin aurkeztutako hitzarmena sinatzea onartutako dirulaguntza bideratzeko.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari.

6.-Iurramendi egoitza: uztaileko kuoten likidazioa eta urtarriletik apirilera bitarteko likidazioen ajustearak.

Iurreamendi egoitzak 2015eko uztaileko kuoten likidazioa eta 2015eko urtarriletik apirilera bitartean egindako likidazioen ajustearak aurkeztu ditu.

Horiek horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari ordaintzea uztaileko kuoten likidazioari dagokion zenbateakoa, 18.141,19€-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 649,76 €
Elbarrien defizita: 17.491,43 €

BIGARRENA.- Onartzea iurreamendi egoitzak 2015eko urtarriletik apirilera bitartean aurkeztutako likidazioen ajustearak, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015eko behin betiko tarifak aplikatuta eginak, honela banatuta:

Urtarrileko likidazioa: -4.560,50 €
Otsaileko likidazioa: -4.029,36 €
Martxoko likidazioa: -4.411,35 €
Apirileko likidazioa: -4.321,02 €

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

7.- Kazkabarrak erangidako kalteak.

Batzordean aurkeztu da abuztuaren 3an izandako ekaitzak kaltetutakoen zerrenda (udaletxean izena eman zutenena).

Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.

8.- Hirigintza eta Obra batzordeko gaiak

Aztertu da "Ingurumena, Auzoak, obrak eta Zerbitzuak" eta "Hirigintza eta azpiegiturak" batzordeetan aztertuko diren gaiei buruzko proposamena.

Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.

9- 24/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzaitzak **24/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **245,645,34€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 24/2015 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA